Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

1283

EBAZPENA, 2010eko otsailaren 3koa, HABEren zuzendari nagusiarena, HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegi edo euskararen autoikaskuntza-zentro homologatuetako, eta espainiar estatuko Euskal Etxeetako ikasleen euskara-mailak, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailak, egiaztatzeko 2010. urteko azterketen deialdiak egiten dituena.

Kultura sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduak zehazten du Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan (HEOK) ezarritako euskararen gaitasun-mailak egiaztatzeko sistema.

HABEn sistema horren egituraren oinarrizko ardatz dira Kultura sailburuaren 2000ko urtarrilaren 24ko Agindua, HEOK onartzen duena, eta Kultura sailburuaren 2006ko martxoaren 13ko Agindua, HEOKaren laugarren mailari dagozkion eduki eta ebaluazio-irizpideak onartzen dituena.

Halaber, apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak helburu du euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetza finkatu eta Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratura (EEMB) egokitzea.

Kultura sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduaren 8. artikuluak xedatzen du, ikaslearen gaitasun komunikatiboa mailaz maila ziurtagiri batez aitortua izateko, ezinbestekoa izango duela azterketariak maila bakoitzari dagokion gaitasun-azterketa gainditzea.

Horrela, egiaztatze-proba bakoitzak neurtuko ditu Dekretu eta Agindu horietan gaitasun-maila bakoitza zedarritzeko finkatutako helburuak eta edukiak (linguistikoak, testualak, estrategikoak…) trebetasunez trebetasun, betiere finkaturiko ebaluazio-irizpideei jarraiki.

Kultura sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduaren 9. artikuluak, gaitasun-ziurtagiri hauek lortzeko azterketon ezaugarri nagusiak ematen dituenak, eskumena ematen dio HABEren zuzendari nagusiari, Ebazpenez gaitasun-proben urteroko deialdia egin eta azterketaldion beharrezko xehetasunak arautzeko.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

1283

RESOLUCIÓN de 3 de febrero de 2010, del Director General de HABE, por la que se realizan las convocatorias de exámenes del año 2010 al alumnado de euskaltegis o centros homologados de autoaprendizaje del euskera inscritos en el Registro de HABE, y de Centros Vascos-Euskal Etxeak del Estado Español para la acreditación de los niveles primero, segundo, tercero y cuarto de competencia en euskera establecidos en el Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos.

La Orden de 6 agosto de 2003, de la Consejera de Cultura, establece el sistema de acreditación de los niveles de competencia del euskera definidos en el Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos (HEOK).

Constituyen ejes de referencia para la estructura de dicho sistema de HABE la Orden de 24 de enero de 2000, de la Consejera de Cultura, que regula el Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos y la Orden de 13 de marzo de 2006, de la Consejera de Cultura, que regula los contenidos y los criterios de evaluación correspondientes al cuarto nivel del Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos.

Por su parte, el Decreto 64/2008 de 8 de abril tiene por objeto la convalidación de títulos y certificados acreditativos del conocimiento del euskera, así como la adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (MCER).

El artículo octavo de la Orden de 6 de agosto de 2003, de la Consejera de Cultura, establece que para la obtención de los certificados que acrediten los niveles descritos en dicha Orden será requisito imprescindible la superación de un examen de aptitud por cada nivel.

Cada prueba de aptitud evaluará atendiendo a los objetivos, contenidos (lingüísticos, textuales, estratégicos…) y criterios de evaluación establecidos en el Decreto y en las citadas Órdenes, las destrezas lingüísticas y el nivel de competencia lingüística de cada examinando.

El artículo noveno de la Orden de 6 de agosto de 2003, de la Consejera de Cultura, que define las características generales de los exámenes para la obtención de dichos certificados, faculta al Director General de HABE para realizar, mediante Resolución, las convocatorias anuales de las pruebas de aptitud y establecer las particularidades de cada una de las convocatorias.

Zehaztasunez aztertu da nola gauzatu diren, 2009an, HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpenez antolatutako gaitasun-probak bi deialdietan: izaniko ikasle-kopurua mailaka, antolaketa-modua, azterketarien banaketa lurraldez lurralde, aztertzaile eta tutoreek aplikatutako ebaluazio-irizpideak, ondorioak eta azterketariek izandako emaitzak. HABEn egin gogoetaldi horren ondorioz proposatutako hobekuntzak biltzen dira 2010eko Ebazpen honetara, egiaztatze-proba hauen kalitate-mailak hobetzea izaki helburu nagusia.

Hori dela eta,

EBAZTEN DUT:

OINARRIZKO ANTOLAKETA

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegi edo euskararen autoikaskuntza-zentro homologatuetan eta espainiar estatuko Euskal Etxeetan euskara-ikasleen komunikazio-gaitasunen mailak egiaztatzeko, 2010. urteko azterketa-deialdiak egin eta prozedurak zehaztea.

2. artikulua.– Jardunbide-arauak.

2.1.– Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua eta Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa dira hizkuntz trebetasunen neurketaren oinarri.

Deialdiok HEOKen zedarritutako lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailak egiaztatzeko egiten dira.

Ebazpen honi atxikirik doan I. Eranskinera bilduta daude azterketa hauen ezaugarriak, antolamendumodua, ebaluazio-irizpideak eta atalez ataleko kalifikazioa. Maila horiek gainditu nahi dituen azterketariak HEOKen maila bakoitzarentzat xedatutako gutxienekoak gainditu beharko ditu, ahoz zein idatziz.

2.2.– Probok azterketari bakoitzaren euskarazko gaitasun komunikatiboa neurtzeko dira.

3. artikulua.– HABEren Azterketa-batzordea.

HABEren Azterketa-batzordearen menpe burutuko dira deialdiotako azterketen antolaketa eta kalifikaziolanak.

HABEren Azterketa-batzordearen funtzioak eta osaketa Kultura sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduaren 11. artikuluan daude jasota.

Se ha analizado con precisión el desarrollo de las dos convocatorias organizadas mediante Resolución por el Director General de HABE correspondientes al año 2009: las pruebas de nivel, la organización, el número de examinados por nivel, su distribución por territorios, junto con los criterios de evaluación aplicados por tutores y examinadores, así como las calificaciones obtenidas. Como resultado de dicho análisis realizado en HABE se han incorporado a esta Resolución propuestas de mejora con el fin de aumentar la calidad de las pruebas.

Por todo ello,

RESUELVO:

BASES ORGANIZATIVAS

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución realizar las convocatorias de exámenes para el año 2010, detallando los correspondientes procedimientos, con el fin de que el alumnado de los euskaltegis o centros homologados de autoaprendizaje del euskera inscritos en el registro de HABE, y de los Centros Vascos-Euskal Etxeak del Estado Español pueda acreditar los niveles de competencia en euskera.

Artículo 2.– Normas de funcionamiento.

2.1.– La evaluación de las destrezas lingüísticas está basada en el Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos (HEOK) y en el Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas: enseñanza, aprendizaje y evaluación (MCER).

Las convocatorias se realizan para acreditar los niveles 1, 2, 3 y 4 establecidos en el HEOK.

En el Anexo I, adjunto a esta Resolución, se incluyen las características de los exámenes, la estructura de los mismos, los criterios de evaluación y la calificación correspondiente a cada uno de los apartados que los conforman. El examinando que desee superar los niveles mencionados deberá alcanzar, tanto oralmente como por escrito, los mínimos exigidos para cada nivel, especificados en el HEOK.

2.2.– Estas pruebas evalúan el nivel de competencia comunicativa en euskera de cada examinando.

Artículo 3.– Comisión de Exámenes de HABE.

La organización y calificación de los exámenes de estas convocatorias se llevarán a cabo bajo la supervisión de la Comisión de Exámenes.

El artículo 11 de la Orden de 6 de agosto de 2003, de la Consejera de Cultura, establece la composición y funciones de la Comisión de Exámenes de HABE.

4. artikulua.– Lurralde-azpibatzordeak.

Azterketa-batzordeak lurraldeko azpibatzordeetan egituratuta antolatuko ditu bere lanak:

a) Gaitasun-proben antolaketarako azpibatzordeak.

b) Gaitasun-proben kalifikaziorako azpibatzordeak.

Gaitasun-proben antolaketarako azpibatzordeko kide izango dira: HABEren lurralde-arduraduna, lurraldeko lau koordinatzaile didaktikoak, hauetariko batek idazkari-lanak egingo dituelarik, eta, gutxienez, HABEren zuzendari nagusiak izendatutako lurraldeko euskaltegietako bi ordezkari.

Gaitasun-proben antolaketarako azpibatzordearen egitekoak dira:

– Deialdiotara bildutako gaitasun-proben egutegia lurralde bakoitzean aplikatzea.

– Gaitasun-probok egingo diren leku egokiak aukeratzeko irizpideak finkatzea.

– Gaitasun-proba bakoitzaren antolamendu-arauak jarri eta ordutegiak erabakitzea.

– Azterketariak dagozkien azterlekuetan banatzea.

– Onartuen zerrenda osatzea.

– Onartuen zerrenden aurka erreklamazioak aurkez litzaketen azterketariei erantzun ahal izateko, erantzun teknikoen oinarriak prestatzea.

– Azterketa-batzordeari onartuen zerrenden aurka erreklamazioak aurkez litzaketenentzako erantzun-proposamenak igortzea.

Gaitasun-proben kalifikaziorako lurraldeko azpibatzordeek –bat mailako, gutxienez– kide hauek izango dituzte: maila horretako koordinatzaile didaktikoa, aztertzaile-talde bakoitzeko tutoreak eta deialdi horretan eta maila horretan tutore horien ardurapean azterketak zuzendu dituzten aztertzaileak.

Gaitasun-proben kalifikaziorako azpibatzorde hauen egitekoak dira:

– Proba osoan egin diren azterketa guztien lagin jakin bat berraztertzea.

– HABEk jarritako zuzenketa-irizpideak aztertzaileek erabilitakoekin alderatzea.

– Zailtasun jakinak edo kontraesanak izan ditzaketen probak birzuzentzea.

– Gaitasun-proben kalifikazioen aurka izan daitezkeen erreklamazioak erantzun ahal izateko, erantzun teknikoen oinarriak prestatzea.

Artículo 4.– Subcomisiones territoriales.

La Comisión de Exámenes organizará su trabajo estructurado en Subcomisiones territoriales:

a) Subcomisiones para la organización de las pruebas de aptitud.

b) Subcomisiones para la calificación de las pruebas de aptitud.

Cada Subcomisión para la organización de las pruebas de aptitud estará compuesta por el responsable territorial de HABE, los cuatro coordinadores didácticos del territorio, entre quienes se elegirá secretario y, al menos, dos representantes de los euskaltegis, nombrados por el Director General de HABE.

Serán funciones de estas Subcomisiones territoriales:

– Aplicar en cada territorio el calendario de las pruebas de aptitud establecidos para estas convocatorias.

– Establecer los criterios para la elección adecuada de las instalaciones en las que se van a llevar a cabo las pruebas.

– Decidir los horarios y características de cada prueba.

– Realizar la distribución de examinandos y su correspondiente ubicación.

– Elaborar las listas de admitidos a las pruebas.

– Preparar las respuestas técnicas para responder a quienes pudieran presentar reclamaciones a las listas de admitidos.

– Remitir a la Comisión de Exámenes las propuestas de contestación a las reclamaciones sobre las listas de admitidos.

Las Subcomisiones territoriales para la calificación de las pruebas, una como mínimo por cada nivel de aptitud, estarán compuestas por el coordinador didáctico de cada nivel, los tutores de cada grupo de examinadores y los examinadores de la prueba que en la convocatoria y nivel correspondiente han corregido los exámenes bajo la supervisión de sus respectivos tutores.

Serán funciones de estas Subcomisiones territoriales:

– Revisar una muestra determinada del conjunto de exámenes efectuados en el transcurso de la prueba.

– Contrastar los criterios de corrección establecidos por HABE con los utilizados por los examinadores de las pruebas.

– Recalificar aquellas pruebas que pudieran presentar contradicciones o dificultades específicas.

– Preparar las bases de las respuestas técnicas para responder a quienes pudieran presentar reclamaciones a las calificaciones de las pruebas de aptitud.

– Azterketa-batzordeari gaitasun-proben kalifikazioen aurka erreklamazioak aurkez litzaketenentzako erantzun-proposamenak igortzea.

5. artikulua.– Deialdion kudeaketa.

Kultura sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduaren 13. artikuluari jarraiki, HABEren Ebaluazio-atalari dagokio azterketa-deialdi hauetako kudeaketa-lanak burutzea.

Ebaluazio-atalburuak koordinatuko ditu Azterketa-batzordeko azpibatzordeen lanak.

6. artikulua.– Informazioa eta tramitazioa on-line.

Egiaztatze-proba hauetan parte hartzeko matrikulazio-prozedura, emaitzen jakinarazteak, galderak, azterketa-deialdien noiz-nongoak, erreklamazio-eskabideak eta ziurtagirien eskaerak, HABEk berak azterketarien zerbitzura www.habe.euskadi.net atarian jarriko duen sistema erabiliz eramango dira aurrera.

7. artikulua.– Erreklamazioak eta gora jotzeak.

Azterketariren batek deialdi batera aurkezteko gutxienekoak bete eta bere izena deialdi horretara aurkezteko behin-behineko onartuen zerrendetan ez dagoela ikusiko balu eta bat ez baletor, dagokion erreklamazioa aurkez dezake gaitasun-probon lurraldeko antolaketa-azpibatzordearen aurrean, zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bost egun naturaleko epean, www.habe.euskadi.net atarian jarritako erreklamazio-inprimakia betez.

Jarraian, HABEk behin betiko onartuen zerrendak argitaratuko ditu.

Era berean, azterketariren bat HABEk argitaratutako behin-behineko emaitzekin edo emaitza orokorrekin bat ez baletor, erreklamazioa aurkez dezake, gaitasun-probon dagokion lurraldeko kalifikazio-azpibatzordearen aurrean, kalifikazioak argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epean, www.habe.euskadi.net atariko erreklamazio-inprimakia betez.

Erreklamazioa egin azterketariak bere espedientea berrikusia izatea nahiko balu, HABEren zuzendari nagusiaren aurrean gora jotzeko errekurtsoa idatziz aurkez dezake deialdiko behin betiko zerrendak argitaratu eta hilabeteko epean.

Horrelakoetan, HABEren zuzendari nagusiak gora jotzeko errekurtsoa egin duen azterketariaren emaitzen zergatia oinarritzea eskatuko dio HABEren Azterketa-batzordeko buruari.

– Remitir a la Comisión de Exámenes las propuestas de respuesta a dar a quienes hubieran presentado reclamaciones contra las calificaciones de las pruebas de aptitud.

Artículo 5.– Gestión de las convocatorias.

En base al artículo 13 de la Orden de 6 de agosto de 2003, de la Consejera de Cultura, corresponde a la Sección de Evaluación llevar a cabo la gestión de estas convocatorias.

La persona responsable de dicha Sección coordinará los trabajos de las Subcomisiones de la Comisión de Exámenes.

Artículo 6.– Información y tramitación on-line.

Los procedimientos para tomar parte en las pruebas de acreditación de HABE (matriculación, notificación de resultados, consultas, lugar y fecha de las convocatorias de exámenes, peticiones de revisión…) se llevarán a cabo utilizando el sistema que HABE pondrá al servicio de quien desee inscribirse en el portal www.habe.euskadi.net .

Artículo 7.– Reclamaciones y recursos.

Si algún examinando considerara que, cumpliendo los requisitos para presentarse a una convocatoria, no ha sido incluido en las listas provisionales de admitidos, podrá presentar la oportuna reclamación ante la Subcomisión territorial para la organización de las pruebas de aptitud de HABE en un plazo de cinco días naturales desde el día siguiente al de la publicación de las listas provisionales, utilizando para ello el impreso de reclamación habilitado expresamente en el portal www.habe.euskadi.net .

A continuación, HABE publicará la lista definitiva de admitidos.

Igualmente, si algún examinando discrepara con las calificaciones provisionales o definitivas hechas públicas por HABE, podrá presentar la oportuna reclamación ante la correspondiente Subcomisión territorial para la calificación de las pruebas de aptitud, en un plazo de cinco días naturales desde el día siguiente al de la publicación de cada una de las calificaciones, tanto la del examen escrito como la del resultado final, utilizando para ello el impreso de reclamación habilitado expresamente en el portal www.habe.euskadi.net .

Quien realice la reclamación contará con un plazo de un mes a partir de la fecha de publicación de los listados definitivos para presentar recurso de alzada ante el Director General de HABE.

En tales casos, el Director General de HABE solicitará al Presidente de la Comisión de Exámenes de HABE que fundamente las calificaciones de cada examen objeto de recurso.

Azterketa-deialdi hauetako gora jotzeko errekurtsoek ez dituzte etengo Ebazpen honetan jasotako ohiko prozedurak.

Egiaztatze-deialdiotako gora jotzeko errekurtsoen idatziak zuzentzeko helbidea HABEren Donostiako Erregistro Nagusiarenak dira: Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6.a. 20018 Donostia-San Sebastián.

8. artikulua.– Deialdi hauetara aurkezteko azterketariak bete beharreko gutxienekoak.

8.1.– Ikasle bezala matrikulatuta egon izana.

HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegi edo euskararen autoikaskuntza-zentro homologatuetan, edota espainiar estatuko Euskal Etxeetan ikasle bezala matrikulatuta egon izana 2009ko martxoaren 20tik 2010eko martxoaren 23ra bitartean, lehenengo, bigarren eta hirugarren mailetako lehen deialdirako, eta 2009ko maiatzaren 25etik 2010eko maiatzaren 5era bitartean laugarren mailako lehen deialdirako; eta 2010eko irailaren 7ra bitartean, lau mailetako bigarren deialdirako.

8.2.– Maila aitortua.

Azterketariak egiaztatze-deialdiotara aurkezteko ezinbestekoa izango du aurkeztu nahi deneko maila 2010eko martxoaren 23rako, lehen, bigarren eta hirugarren mailetan, eta laugarren mailan 2010eko maiatzaren 5erako aitortua izatea, lehen deialdirako; eta 2010eko irailaren 7rako, bigarren deialdirako.

Euskaltegian, autoikaskuntza-zentroan edota Euskal Etxean matrikulatuta egon eta, behar den datarako, ikasten ari den maila euskaltegian gainditu ez duen azterketariak beheragoko mailan aurkezteko aukera izango du, nahiz eta maila horretan euskaltegian matrikulatuta izan ez. HABEk kontuan hartuko ditu 2000-2001 ikasturtetik aurrera euskaltegiak ikasle honi Q87n emandako emaitzak.

Maila batera baino gehiagora aurkeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da maila horiek euskaltegian, autoikaskuntza-zentroan edo Euskal Etxean gaindituak izatea, lehen, bigarren eta hirugarren mailetakoak, 2010eko martxoaren 23rako, eta laugarren mailakoak 2010eko maiatzaren 5erako, lehen deialdirako; eta 2010eko irailaren 7rako, bigarren deialdirako.

8.3.– Azterketariaren betebeharrez.

Azterketariak deialdi hauetara biltzen diren gutxieneko hauek bete beharko ditu:

a) Matrikula bideratu.

b) Azterketa-eskubideak ordaindu.

Los recursos de alzada que se pudieran presentar contra actos de esta convocatoria de exámenes no suspenden los procedimientos ordinarios previstos en esta Resolución.

Los correspondientes recursos de alzada deberán dirigirse al Registro General de HABE, sito en la calle Vitoria-Gasteiz, nº 3-6º, 20018 Donostia-San Sebastián.

Artículo 8.– Requisitos mínimos que deberá cumplir el examinando para acceder a las convocatorias.

8.1.– Matriculación.

Podrán examinarse aquellos alumnos que hayan formalizado la matrícula en los euskaltegis o en los centros homologados de autoaprendizaje del euskera inscritos en el registro de HABE, o en los Centros Vascos-Euskal Etxeak del Estado Español dentro del período comprendido entre el 20 de marzo de 2009 y el 23 de marzo de 2010 para la primera convocatoria del primer, segundo y tercer nivel, y desde el 25 de mayo de 2009 hasta el 5 de mayo de 2010 para la primera convocatoria del cuarto nivel; y hasta el 7 de septiembre de 2010 para la segunda convocatoria de los cuatro niveles.

8.2.– Nivel reconocido.

Quien desee presentarse a la primera convocatoria deberá tener reconocido el nivel al que opte antes del 23 de marzo de 2010, en caso de presentarse a los niveles 1, 2 ó 3, y antes del 5 de mayo de 2010 para el nivel 4. Quien desee presentarse a la segunda convocatoria deberá tener reconocido el nivel al que opte antes del 7 de septiembre de 2010.

Quien habiendo formalizado la matrícula en el euskaltegi, centro de autoaprendizaje o Centro Vasco-Euskal Etxea, no haya superado para la fecha indicada el nivel que esté cursando, podrá presentarse al examen del nivel inmediatamente inferior, aunque no esté matriculado para ese nivel. HABE tomará en consideración los resultados facilitados por los centros a partir del curso académico 2000-2001 en la aplicación informática Q87 para ambas convocatorias.

Para poder presentarse a más de un nivel, será requisito imprescindible haber superado dichos niveles en el euskaltegi, centro de autoaprendizaje o Centro Vasco-Euskal Etxea antes del 23 de marzo de 2010, para quienes opten en primera convocatoria a los niveles 1, 2 ó 3, y antes del 5 de mayo de 2010 para quienes opten en primera convocatoria al nivel 4; y antes del 7 de septiembre de 2010 para quienes se presenten en segunda convocatoria.

8.3.– Obligaciones.

El examinando deberá cumplir los requisitos mínimos que se recogen en estas convocatorias:

a) Formalizar la matrícula.

b) Abonar los correspondientes derechos de matrícula.

c) Azterketa-egunean ordurako bertan izan.

d) Azterketako arduradunen aurrean identifikatu, nortasun-agiria edo agiri ofizial baliokideren bat aurkeztuz.

Betebehar hauek betiere Ebazpen honetan ematen diren epe eta prozedurei jarraiki bete beharko dira, salbuespenik gabe, 15. artikuluan zehazten direnak izan ezik. Horietakoren bat bete ezean, ez du azterketa egiterik izango.

9. artikulua.– Euskaltegi, euskararen autoikaskuntza-zentro homologatu edo Euskal Etxe bakoitzaren egitekoez.

Azterketaria inskribatuta dagoen euskaltegi edo euskararen autoikaskuntza-zentro homologatuko zuzendariaren egitekoa da ikasle bakoitzaren matrikula-fitxa osatua eta ebaluazio-datuak euskaltegien kudeaketarako aplikazio informatikoan (Q87) eguneratuta izatea.

Azterketa-deialdi bakoitzeko, euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntza-zentro homologatuak, HABEren berariazko aplikazio informatikoaren prozedurei jarraiki, matrikulaturik dituen ikasleon gaitasun- eta erabilera-mailen gutxienekoak egoki ziurtatuko dizkio HABEri, 8. artikuluan adierazitako egunetarako.

Data horietarako aurkezten den maila aitortua beharko du izan azterketariak eta euskaltegiak edo euskararen autoikaskuntza-zentro homologatuak horrela aditzera emanda HABEri, Ebazpen honek emandako epeetan eta salbuespenik gabe, Q87 aplikazio informatikoaren mailaz mailako kodeetan:

a) Lehen maila: 106 kodea.

b) Bigarren maila: 109 edo 201 kodeak.

c) Hirugarren maila: 112 edo 202 kodeak.

d) Laugarren maila: 401 eta 411 kodeak.

Euskal Etxeetako ikasleen kasuan, azterketa egin ahal izateko gainditua eduki beharreko mailak goian aipatutakoak eta data berberetan izango dira, eta baldintza hori betetzen dela Euskal Etxearen ziurtagiriaren bitartez zurituko da.

10. artikulua.– Izendapenak.

Euskararen gaitasun-mailak egoki ziurtatu ahal izateko, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren, HABEren zuzendari nagusiak izendatuko ditu:

– HABEren Azterketa-batzordeko kideak.

– Gainera, izendatuko ditu lurralde-arduradunak HABEren teknikarien artean.

c) Presentarse el día del examen para la hora indicada.

d) Identificarse ante los responsables de los exámenes mostrando el Documento Nacional de Identidad o equivalente.

Estos requisitos se cumplirán sin excepciones, salvo las que se detallan en el artículo 15, y dentro de los plazos y siguiendo los procedimientos establecidos en la presente Resolución. El incumplimiento de alguno de ellos supondrá la inhabilitación para acceder a la convocatoria.

Artículo 9.– Funciones de cada euskaltegi, centro homologado de autoaprendizaje del euskera o Centro Vasco-Euskal Etxea.

Corresponde a la dirección del euskaltegi o centro homologado de autoaprendizaje del euskera en el que está inscrito el examinando mantener su ficha de matrícula debidamente cumplimentada y actualizados los datos de evaluación en la aplicación informática para la gestión de euskaltegis (Q87).

El euskaltegi o centro homologado de autoaprendizaje del euskera deberá en cada convocatoria de exámenes, y con anterioridad a la fecha especificada en el artículo 8, certificar debidamente cuáles son los niveles mínimos de competencia y utilización de euskera del alumnado matriculado, siguiendo los procedimientos de las aplicaciones informáticas.

Quien desee participar en la convocatoria deberá tener reconocido por el euskaltegi o centro homologado de autoaprendizaje del euskera el nivel al que se presenta para dichas fechas, sin excepciones, y los propios centros notificarán de ello a HABE cumpliendo los plazos que establece esta Resolución y utilizando en la aplicación informática Q87 los códigos referentes a cada nivel:

a) Primer nivel: código 106.

b) Segundo nivel: códigos 109 ó 201.

c) Tercer nivel: códigos 112 ó 202.

d) Cuarto nivel: códigos 401 y 411.

En el caso del alumnado de los Centros Vascos-Euskal Etxeak, los niveles superados para poder presentarse a los exámenes serán los mismos que los mencionados anteriormente y para las mismas fechas, que se justificarán mediante certificado del Centro Vasco-Euskal Etxea.

Artículo 10.– Nombramientos.

Tras publicarse la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, el Director General de HABE efectuará los siguientes nombramientos:

– Componentes de la Comisión de Exámenes de HABE.

– Responsables territoriales, de entre los técnicos de HABE.

– Mailaz mailako koordinatzaile didaktikoak, Autonomia Erkidegorakoak zein lurraldeetakoak.

– Tutoreak.

– Aztertzaileak.

HABEren zuzendari nagusiak egiaztatze-deialditarako izendapenak eginez emaniko Ebazpenean, izendapen bakoitzeko ordezko bat izendatuko du, zernahi gerta ere, euskararen gaitasun-maila neurtzeko probok aurrera eraman ahal izateko.

10.1.– Azterketa-batzordeko kideak.

HABEren Azterketa-batzordeko kideen funtzioak Kultura sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduaren 11. artikuluan zehaztutakoak dira. Batzordekide hauen artetik idazkari denak honako egiteko berezi hauek bereganatuko ditu:

– Deialdiotako ezaugarri, irizpide eta gutxienekoak bete eta betearaztea, aldian aldiko ekintzen aktak idatziz edo dagokion arduradunari idatzaraziz.

– Ebazpen honetan zehaztutako prozedura eta urrats oro egoki betetzen dela ziurtatzeko, prozedurak gertutik jarraitu, eta okerrik bada, zuzenaraztea.

10.2.– Lurralde-arduradunak.

Gaitasun-mailak egiaztatzeko azterketa hauek egoki antolatzeko, HABEren zuzendari nagusiak HABEren teknikarien artean lurralde-arduradun bat izendatuko du lurralde bakoitzeko.

Lurralde-arduradunaren egitekoak izango dira:

– Azterketa-lekuak aukeratzea.

– Azterketak egoki eta kalitate-maila duinez egiteko moduan antolatzea.

– Euskaltegiei euren azterketarien ordutegi eta gela- banaketaren berri ematea.

– Euskaltegiei azterketa-egunetan parte hartu behar duten aztertzaileen berri ematea.

– Azterketen banaketa eta zuzendu osteko bilketa antolatzea.

– Azterketa idatziak egiten diren egunetako aktak bete, aztertzaileei kalifikazio-orriak betearazi eta grabazio informatikora zuzen eta egoki eramaten direla bermatzea.

– Lurraldeko mailaz mailako koordinatzaileak eta euskaltegietako arduradunak koordinatzea.

10.3.– Mailaz mailako koordinatzaile didaktikoak.

10.3.1.– Autonomia Erkidegorakoak.

HABEren zuzendari nagusiak Ebazpenez izendatuko du maila bakoitzeko koordinatzaile didaktikoa.

– Coordinadores didácticos, tanto generales como territoriales, de cada nivel.

– Tutores.

– Examinadores.

La Resolución del Director General de HABE en la que figuren dichos nombramientos nombrará suplentes para hacer frente a cualquier eventualidad, con el fin de llevar a cabo las pruebas de acreditación de niveles de competencia de la lengua.

10.1.– Integrantes de la Comisión de Exámenes.

El artículo 11 de la Orden de 6 de agosto de 2003, de la Consejera de Cultura, establece las funciones de quienes componen la Comisión de Exámenes de HABE. Quien sea nombrado secretario entre dichos integrantes tendrá asignadas las siguientes funciones específicas:

– Cumplir y hacer cumplir las especificaciones, criterios y los mínimos de las convocatorias, redactando en cada caso las actas y haciéndolas redactar a los responsables correspondientes.

– Velar por la ejecución de todos los pasos y procedimientos definidos en esta Resolución, con el fin de asegurar su debido cumplimiento y, en el caso de que existiera algún defecto, subsanarlo.

10.2.– Responsables territoriales.

El Director General de HABE nombrará un responsable territorial por cada territorio para organizar correctamente las pruebas de acreditación de los niveles de competencia.

Sus funciones serán:

– Elegir el lugar del examen.

– Organizar los exámenes de forma que puedan ser realizados adecuadamente y en condiciones dignas.

– Informar a cada euskaltegi de los horarios y distribución de aulas correspondientes a los examinandos de dicho euskaltegi.

– Informar a los euskaltegis sobre los examinadores que van a participar el día del examen.

– Organizar la distribución de los exámenes y posterior recogida una vez corregidos.

– Cumplimentar las actas del día de los exámenes escritos y hacer cumplimentar las hojas de calificaciones de los exámenes, para que estén en condiciones adecuadas para su tratamiento informático.

– Coordinar al responsable territorial de cada nivel junto con los responsables de los euskaltegis.

10.3.– Coordinadores didácticos de cada nivel.

10.3.1.– Para la Comunidad Autónoma Vasca.

El Director General de HABE nombrará mediante Resolución entre el personal técnico de HABE al

Mailaz mailako koordinatzaile didaktiko hauek HABEko teknikarien artean izango dira izendatuak eta HABEren Azterketa-batzordearen esanera jardungo dute.

Maila bakoitzeko koordinatzaile didaktikoaren egitekoa izango da maila hori neurtzeko landu den azterketa egoki prestatu dela bermatzea (helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak).

10.3.2.– Lurraldeetarakoak.

HABEren zuzendari nagusiak Ebazpenez izendatuko ditu HABEren teknikarien artean lurraldeko mailaz mailako koordinatzaile didaktikoak. Mailaz mailako koordinatzaile didaktiko hauek Autonomia Erkidegorako mailaz mailako koordinatzaileen esanera jardungo dute arlo didaktikoari dagokionetan, eta lurralde-arduradunaren irizpideetara antolaketari dagokionez.

Lurraldeko mailaz mailako koordinatzaile didaktikoen egitekoak izango dira:

– Lurraldean jasotako azterketen zaintzaz eta azterketa-egunerako prestaketa lanez arduratzea.

– Azterketa egiteko baliabide egokituak eskatzen dituzten azterketarien beharrizanei erantzutea.

– Azterketa idatzietarako zaintza-lanak eta burutzapena antolatzea.

– Ahozko azterketetarako materialen prestaketaz arduratzea eta aztertzaileen nahiz azterketarien antolaketa burutzea.

– Landu den azterketa egoki aplikatuko dela bermatzea.

10.3.3.– Aztertzaile-taldeetako tutoreak.

Aztertzaile-taldeetako tutoreen egitekoak izango dira:

– Aztertzaile-talde baten orientatzaile-lanak bideratzea azterketen ebaluazio-irizpideen aplikazioan.

– Bateratze-saioetan aztertzaileen lanaren ardura izatea.

– Azterketak zuzentzea.

– Aztertzaileek egindako zuzenketak berrikustea.

– Berrazterketa-saioen ardura izatea.

10.4.– Aztertzaileak.

HABEren zuzendari nagusiak Ebazpenez izendatuko ditu aztertzaileak, euskaltegi-sare ezberdinetako irakasleen artean edo egun HABEn akreditatuta dauden aztertzaileen artean, HABEk antolatutako bateratze-saioetan parte hartu eta egiaztatu ondoren.

coordinador de cada nivel, que actuará según las directrices de la Comisión de Exámenes de HABE.

El coordinador didáctico de cada nivel deberá garantizar que el examen para evaluar dicho nivel haya sido diseñado correctamente en sus criterios de evaluación, objetivos y contenidos.

10.3.2.– Para cada territorio.

El Director General de HABE nombrará mediante Resolución entre el personal técnico de HABE al coordinador territorial de cada nivel, que estará adscrito funcionalmente al coordinador de cada nivel para la CAV y organizativamente al coordinador territorial correspondiente.

Sus funciones serán:

– Responsabilizarse de la guarda y custodia de los exámenes del territorio y de los preparativos para la aplicación del examen.

– Responder a quienes hayan solicitado la adecuación de las condiciones del examen a sus situaciones personales.

– Organizar la vigilancia y la realización de los exámenes escritos.

– Preparar el material necesario para la realización de los exámenes orales, y conformar la organización de examinadores y examinandos.

– Garantizar la aplicación correcta de los exámenes diseñados.

10.3.3.– Tutores de los grupos examinadores.

Sus funciones serán:

– Orientar al grupo de examinadores en la aplicación de los criterios de aplicación y corrección de las pruebas.

– Responsabilizarse del trabajo de los examinadores en las sesiones de unificación de criterios.

– Corregir los exámenes.

– Dirigir la supervisión de las correcciones realizadas por los examinadores.

– Responsabilizarse de las sesiones de revisión de notas.

10.4.– Examinadores.

El Director General de HABE nombrará a los examinadores entre el profesorado de las distintas redes de euskaltegis, o entre quienes hayan sido acreditados actualmente en HABE mediante Resolución, una vez que hayan participado en las sesiones de unificación de criterios y hayan sido acreditados debidamente.

Aztertzailearen egitekoak izango dira:

– Bateratze-saioetan parte hartzea.

– Azterketa-egunean azterketa-lekuan lurralde-arduradunaren esanera izatea.

– Azterketak gorde eta zaintzea.

– Azterketak zuzentzea.

– Berrazterketa-saioetan parte hartzea.

– Kalifikazio-orriak eta, dagokionetan, aktak egoki eta zuzen betetzea.

DEIALDION XEHETASUNAK

11. artikulua.– 2010erako deialdiak.

Bi deialdi izango dira 2010. urtean: uda aurretik, lehena; uda ondoren, bigarrena.

12. artikulua.– Deialdion egutegia.

HABEk www.habe.euskadi.net atarian emango du jakitera bi deialdiok egituratzeko antolatu den egutegia: matrikula-epea; onartuen behin-behineko zerrendak eta behin betiko zerrendak argitaratzeko egunak; proba idatziaren data; behin-behineko emaitzak argitaratze-eguna; ahozko probaren data; behin-behineko emaitzak argitaratzeko eguna eta emaitza orokorrak jakinarazteko data.

HABEk egutegian azalduko diren egunak alda ditzake deialdiotako prozeduretan gerta litezkeen gorabeheren arabera, matrikula-epeak izan ezik.

13. artikulua.– Matrikula-ordaina.

Matrikula 18 eurokoa izango da maila bakoitzeko, kopuru hori ezartzen baitu Kultura sailburuaren 2008ko irailaren 4ko berariazko Aginduak, 6. artikuluan, HABEk eskaini eta betetzen dituen jardueren prezio publikoetarako.

Maila batera baino gehiagora aurkeztu nahi duen azterketariak zenbat matrikula, hainbeste matrikula-ordain egin beharko ditu. Matrikula bakoitza deialdi baterako izango da.

14. artikulua.– Matrikula bideratzeko era.

Azterketarako izena ematea internet bidez egingo da, www.habe.euskadi.net atarian matrikula-inprimakia betez.

Matrikularen ordainketa ere internet bidez egin ahal izango da edo, bestela, bide hori eskaintzen duten kutxa edo banketxeetan, izena ematean eskuratu den matrikula-inprimakia erabiliz eta bertan esaten den epearen barruan.

HABEk azterketariaren matrikularen ordainketa ziurtatutakoan emango du gauzatutzat eta osatutzat bere matrikulatze-prozesua.

Sus funciones serán:

– Tomar parte en las sesiones de homogeneización de criterios.

– Cumplir los cometidos encomendados por el responsable territorial el día del examen.

– La guarda y custodia de los exámenes.

– Corregir los exámenes.

– Tomar parte en las sesiones de recalificación.

– Cumplimentar debidamente las hojas de calificaciones y las actas cuando corresponda.

CARACTERÍSTICAS DE LAS CONVOCATORIAS

Artículo 11.– Convocatorias de 2010.

Se realizarán dos convocatorias durante el año 2010, con periodicidad semestral.

Artículo 12.– Calendario de las convocatorias.

HABE dará a conocer a través del portal www.habe.euskadi.net el calendario correspondiente a ambas convocatorias: plazos de matrícula, fechas de publicación del listado provisional de admitidos, fechas de publicación del listado definitivo de admitidos, fecha de la prueba escrita, fecha de publicación de los resultados provisionales del examen escrito, fecha de la prueba oral, fecha de publicación de los resultados provisionales del examen oral, y fecha de publicación de los resultados finales.

HABE podrá adecuar las fechas previstas en el calendario de estas pruebas en función de las circunstancias que pudieran concurrir en el desarrollo de las mismas, salvo los plazos de matrícula.

Artículo 13.– Precio de la matrícula.

El precio de la matrícula será de 18 euros por cada nivel, según lo establecido en el artículo sexto de la Orden de 4 de septiembre de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se establecen los precios públicos de los servicios que presta y actividades que realiza HABE.

El alumno que, cumpliendo los requisitos, quiera presentarse a más de un nivel, deberá abonar una matrícula por cada nivel y por cada convocatoria. Cada matrícula será válida para una sola convocatoria.

Artículo 14.– Modo de formalizar la matrícula.

Las inscripciones para el examen se realizarán por Internet en el portal www.habe.euskadi.net cumplimentando el impreso de matrícula.

El pago de la matrícula podrá realizarse por Internet, o en su caso, mediante pago en entidades bancarias que ofrezcan dicho servicio, utilizando para ello el impreso que recibirá el alumno al inscribirse, y dentro del plazo que figura en dicho impreso.

HABE dará por formalizado y finalizado el proceso de matrícula una vez verificado el pago correspondiente.

15. artikulua.– Onartuen zerrendak.

Matrikula egiteko epea amaitu ondoren, onartutako azterketarien behin-behineko zerrendak osatuko ditu HABEk eta www.habe.euskadi.net atarian argitaratuko, azterketari bakoitzak bere matrikulazioaren berri izan dezan.

Erreklamazio-epea amaitu ondoren, behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

16. artikulua.– Azterketari zenbaiten egoera bereziak.

Azterketok egoki egiteko berezitasunen bat behar duen azterketariak, matrikularekin batera, HABEren www.habe.euskadi.net atariko matrikulazio-orriak horretarako bereziki duen atala egoki betez, HABEren lurralde-arduradunari jakinaraziko dio nolako egokitzapena behar duen (aulki, mahai edo ordenagailu berezia, entzungailuak, braille-sistema…). HABEk, egoki irizten dionean, denbora nahiz baliabideak egokituko dizkio, betiere azterketariak egiaztatu nahi duen gaitasun-maila egoki egiaztatu ahal izatea bermatuz.

17. artikulua.– Azterketaldion noiz-nongoak.

Edozein maila egiaztatzeko azterketak azterketariaren gaitasun komunikatiboa lau trebetasunetan neurtzeko da eta bi proba izango ditu: ahozkoa eta idatzia.

Ebazpen hau indarrean jarri eta hamar eguneko epean jarriko ditu HABEk, www.habe.euskadi.net atarian, 2010. urteko azterketa-deialdiotarako aurreikusitako datak eta lekuak.

18. artikulua.– Azterketen ezaugarriak, antolamendumodua, ebaluazio-irizpideak eta atalez ataleko kalifikazioak.

HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluari jarraiki, Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuko Ebaluazio-atalak ahozko zein idatzizko probak diseinatuko ditu, mailaz mailako ebaluazio-irizpideak oinarri izaki.

Egiaztatze-maila bakoitza neurtzeko prestatutako azterketek azterketari bakoitzaren euskarazko gaitasun komunikatiboa neurtuko dute: azterketariak euskaraz entzundakoa ulertzeko eta irakurritakoa bereganatzeko duen gaitasuna, batetik; eta euskaraz aditzera eman nahi dituen diskurtsoak ahoz zein idatziz egiteko duen gaitasuna, bestetik.

Lau egiaztatze-mailetan egingo dira azterketok. Maila bakoitzeko azterketak, mailaren ezaugarriak kontuan hartuta, azterketariaren ahozko eta idatzizko gaitasun komunikatiboa neurtuko ditu, I. Eranskinera bildutako ebaluazio-irizpideen arabera.

Ahozkora aurkeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da idatzia gainditzea.

Artículo 15.– Listado de admitidos.

Finalizado el plazo de matrícula, HABE confeccionará las listas provisionales de los examinandos admitidos; dichas listas se publicarán en el portal www.habe.euskadi.net para que cada examinando pueda informarse sobre el estado de su matrícula.

Finalizado el plazo de reclamaciones, se publicarán las listas definitivas.

Artículo 16.– Situaciones personales que requieran adaptaciones.

Si para la correcta realización del examen algún examinando necesitara determinada adaptación específica a su situación personal, la solicitará al responsable territorial de HABE, cumplimentando adecuadamente el apartado destinado a ello en el portal www.habe.euskadi.net, indicando el tipo de adaptación que necesita: silla, mesa u ordenador especial, altavoces, sistema braille…. HABE adecuará, cuando lo estime oportuno, la duración del examen así como los recursos a utilizar a fin de garantizar que dicha persona está en condiciones de acreditar el nivel de competencia correspondiente.

Artículo 17.– Fechas y lugar de las convocatorias.

El examen para la acreditación de cualquiera de los niveles que evalúan la competencia comunicativa de cada examinando constará de dos pruebas: una oral y otra escrita.

Una vez entre en vigor esta Resolución, HABE publicará en un plazo de 10 días las fechas y lugares previstos para el año 2010, en el portal www.habe.euskadi.net .

Artículo 18.– Exámenes: características, organización, criterios de evaluación y calificaciones de los distintos apartados.

En base al Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos de HABE, la Sección de Evaluación del Servicio de Didáctica de la Lengua diseñará las pruebas orales y escritas atendiendo a los criterios de evaluación de cada nivel.

Los exámenes diseñados para medir cada nivel evaluarán la competencia comunicativa en euskera de cada examinando: su destreza para comprender lo escuchado y asimilar lo leído y su destreza para expresar oralmente y por escrito el discurso que desea comunicar.

Dichos exámenes se realizarán en los 4 niveles de acreditación. Los exámenes correspondientes a cada nivel evaluarán, teniendo en cuenta sus características específicas, la competencia comunicativa oral y escrita de cada examinando, según los criterios de evaluación especificados en el Anexo I.

Será requisito indispensable para presentarse a la prueba oral haber superado la prueba escrita.

Azterketaren bi zatiak eta trebetasun bakoitzaren neurketarako I. Eranskinean eman gutxienekoak gainditu beharko ditu azterketariak azterketa gainditutzat emateko. Maila bakoitzean azterketak denera 100 puntu izango ditu gehienez, eta gainditzeko, gutxienez, 50 puntu lortu beharko ditu azterketariak.

